



EUSKERA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZEN UDAL- ORDENANTZAREN ALDAKETA

1.artikulua.—Xedea

Ordenantza honen xedea Gorlizko Udalak herritarrek euskara ikasteko dirulaguntzak izan ditzaten politika erabiltzeko ahalbidea irekitzea da, eta horrela adin, matrikulazio eta bertaratze baldintzak betetzen dituen udalerriko edozein herritar laguntza horietaz baliatu ahal izango da, nahiz eta interesatuen baliabide ekonomikoak urriak izan.

2. artikulua.—Erabilera esparrua

Ordenantza honen barne, 4. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten Gorlizko herritar guztiak, sartzen dira.

3. artikulua.—Dirulaguntzaren kopurua

3.1. Ordenantza honek araupetzen dituen dirulaguntzak era honetakoak izango dira:

3.1.1.- Barnetegi ofizialetara edo homologatuera joatea: matrikula eta irakaskuntza kostuaren %50a

3.1.2.-Zentro ofizial edo homologatuetan euskara ikastaroetara joatea:

a) Lehenengo urterako Udalari eskaera egiten zaion ikasturteko matrikularen eta irakaskuntza kostuaren %50.

b) Bigarren urterako Udalari eskaera egiten zaion ikasturteko matrikularen eta irakaskuntza kostuaren %60.

c) Hirugarren urterako Udalari eskaera egiten zaion ikasturteko matrikularen eta irakaskuntza kostuaren %70.

d) Laugarren urterako Udalari eskaera egiten zaion ikasturteko matrikularen eta irakaskuntza kostuaren %80.



e) Bosgarren urterako Udalari eskaera egiten zaion ikasturteko matrikularen eta irakaskuntza kostuaren %90.

f) Seigarren urterako Udalari eskaera egiten zaion ikasturteko matrikularen eta irakaskuntza kostuaren %100.

3.1.3.- Gorlizko EBPNa garatzeko asmoz Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak antolatu eta Gorlizko Udalak babestutako euskara ikasteko berariazko ikastaroetan parte hartzea. Mota honetako diru-laguntza jasotzeko euskararen familia bidezko transmisioa bermatzea helburu duten ikastaroak baino ez dira kontuan izango, hots, diru-laguntza honen barruan ez dira egongo euskaltegiek jende ororentzat antolatutako ikastaroak. Gaizki ulerturik egon ez dadin, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak erabakiko du zein ikastaro motak jasoko duen diru-laguntza hau.

Gorlizko Udalak matrikularen zenbateko osoa (%100) itzuliko die honako baldintza hauek betetzen dituzten ikasleei:

- Gurasoentzako berariazko euskara ikastaroetan matrikulatuta egotea.
- Matrikula ordaintzean Gorlizko Udalean errolatuta egotea.
- Gutxienez ere, eskola orduen %80 jasotzea edo/eta matrikulatutako maila gainditzea.
- Diru-laguntza eskatu eta hurrengo ikasturtean mota honetako ikastaroren batean parte-hartzea, Gorlizen bertan zein beste herri batean.

3.2. Ezin da gainfinantzaketarik egon, hau da, diruz lagundutako guztizko kopurua ez da matrikularen zenbateko osoa baino handiagoa izango. Hori horrela izan dadin, Udalak eskatzaileei emandako diru-laguntzen berri emango dio HABEri.

4. artikulua.—Dirulaguntzak jaso ahal izateko baldintzak

1. Ikasketak egiteko aldi osoan Gorlizko udalerrian errolatuta egotea edo Gorlizko Udalarekin erabiltze hitzarmena duen elkarre bateko kide izatea eta, gutxienez ere, 16 urte beteta izatea.

2. Interesatuak aurrez eskaera egin izana.



3. Matrikularen prezioa edo ezarritako ikastaroaren prezioa aurrez ordaintzea, jarritako apean.

4. Dirulaguntza eskatu den maila edo mailetan emandako eskola ordu guztien %80 jasotzea, gutxienez ere edo matrikulatutako maila gainditzea.

Horretarako, ez dira kontuan izango behar bezala justifikatutako hutsegiteak, esaterako, gaixotasun, mediku kontsulta, edo ezinbesteko eginkizunak betebeharra edo agindutako azterketetara joan beharra

5. Zentroko ikasle bezala baja ez hartzea, dirulaguntza eskatzen den mailak edo mailek dirauten bitartean.

6. Diruz laguntzeko eskatzen den maila, eskaera egin den urte berean edo aurrekoan ordaindu eta hasi izana.

7. Matrikulatutako ikasturtean ikastaroak dirauen bitartean eskoletara joateari ez uztea.

5. artikulua.- Aurekeztu beharreko agiriak

Hona hemen euskara ikastegatik diru-laguntza eskatzen dutenek aurkeztu beharreko agiriak:

a) Udalak diru-laguntzen eskaera egiteko espresuki prestatutako idazkia behar bezala beteta.

b) NANaren fotokopia.

c) Euskaltegiak egindako ziurtagiria. Ziurtagiria ikasturtea amaitu eta gero aurkeztu beharko da eta honakoak agertu beharko dira bere baitan:

- Ikasleak egindako eta lortutako maila/k.
- Asistentzia. Zentroak diru-laguntzaren onuradunari dagokion mailan emandako eskola orduak eta onuradunak berak jasotako eskola orduak adieraziko dira.
- Hala balegokio, euskaltegiak eskatzaileari emandako diru-laguntzen ziurtagiria.



- d) Eskatzaileak beste erakunde batek euskara ikasteagatik bestelako diru-laguntzarik eman ez diola adierazten duen zinpeko aitortpena aurkeztu beharko du. Horretarako idazkia Udaletxeko Idazkaritzan jaso daiteke
- e) Matrikularen ordainagaria.

6. artikulua.- —Jardunbidea eta kudeaketa arauak

1. Eskakerak ikastaroa egiten den urteko uztailaren 1etik urriaren 31ra bitartean aurkeztuko dira eta diru-laguntzak urte horretako abenduan zehar emango dira, eskaera guztiak banan-banan aztertutakoan.

2. Maila bakoitzari dagozkion azterketak bukatuta, Zentroaren Zuzendaritzak diru-laguntzen eskatzaileei dagozkien bertaratze, aprobetxamendu (bertaratzea eta ikasketa maila) eta jasotako bekei (hala dagokionean) buruzko txostena luzatuko du. Informe hau, interesatuek aurrez egindako eskaera eta adierazpenekin batera, euskarazko informazio batzordeak baloratuko ditu eta ebazpen proposamena egingo du aipatu dokumentazioan oinarrituta eta/edo bidezko eman ditzakeen xehetasun gehiago eskatu ahal izango ditu aurkeztutakoak gutxiegi izatekotan.

3. Ordenantza honetan aurreikusitako diru-laguntzaren bat eskuratzeak ez dakar berarekin hurrengo ikaskurteetan, besterik gabe, berriro jasotzea.

Diru-laguntzak jaso izanez gero, ikasturte akademiko bakoitzean aurkeztu beharko dira eskaera eta eskatutako agiriak, eta ikasturte horretarako baino ez dute balio izango

7. artikulua.—Aurrekontu kontsignazioa eta diru-laguntzen ordainketa

Ordenantza honetan aurreikusitako dirulaguntzei dagokienez, udal aurrekontuan beharrezko diren diru-izendapenak bilduko dira, Euskarazko Informazio Batzordearen kargura orotara dirulaguntza horien gehienezko muga zehaztuz.

Eskatutako diru-laguntzen zenbatekoa aurrekontu kontsignazioa baino handiago izanez gero, Udalak euskara ikasteagatik emango dituen diru-laguntzetarako partida baldintzak betetzen dituzten eskaeren artean hainbanatuko da.



Euskara ikasteagatik emango diren diru-laguntzak urtean behin baino ez dira jasoko, epe barruan aurkeztutako eskaera guztiak banan-banan aztertu ondoren.

Ezin da gainfinantzaketa gertatu, hots, diruz lagundutako guztizko kopurua ez da matrikularen zenbateko osoa baino handiagoa izango.

8. artikulua.—Arau-haustek eta zigorrak

Ordenantza honetan aurreikusitako laguntzak jasotzeko eskubidea ematen duten baldintzetan datuak ezkutatu edo iruzurra egiteak, eskubidea baliogabetzea ekarriko du eta behar ez bezala emandako kopuruak itzuli egin beharko dira, burutu daitezkeen legeko ekintzen kaltetan gabe.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.